


Euskal AEko eraikuntzako kostuak %0,1 igo ziren 2010eko apirilean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko apirila, 2009ko apirilarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %1,6 gehitu ziren.

2010eko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,6, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) Gehikuntza apirilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Eraikuntzaren kostuen indizea

2010eko apirilean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 igo dira.

Apirilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,1eko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilaren atalean lehengaien kostuak %0,8 igo ziren. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Etxegintzako lehengaien kostuak %0,6 hazi dira eta Obra Zibilekoenak %5,8.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean Petrolio-fintzea (%39,8) nabarmentzen da. Ondoko sektoreetan ere igo dira prezioak: Metalurgia (%4,2), Ez-metalezko industria (%1,6), Material elektrikoa (%1,5), Kautxu eta plastikoa (%1,4) eta Industria Kimikoa (%1,0) besteren artean. Urte artean (2009ko apiriletik aurtengora) ondokoek izan dituzte prezio-murrizketak: Energia elektrikoa eta gasa (%-6,0), Zurgintza (%-2,4), Metalezko gaiak (%-1,5) eta Material elektronikoa (%-1,5), besteren artean.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA. 2010EKO APIRILA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,1	0,1	1,6	1,6
ERAIKINAK	117,7	-0,1	0,9	1,2
OBRA ZIBILA	119,7	0,6	4,7	3,2
LEHENGAIEN KOSTUA	117,1	0,1	1,6	1,6
ERAIKINAK	116,6	-0,1	0,6	1,0
OBRA ZIBILA	119,0	0,8	5,8	3,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,7	0,0	2,0	2,0

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

[Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua](#)